



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 6a

45 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagaien prestazio osagarria ezartzen duen 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, osasun-garraioaren arloan Osasun Departamentuak egindako jardueri buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egingina (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakunde zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Helduen Tutoretzarako Fundazioa iraungi dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina (15. or.).

—Galdera, etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruzkoa, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (16. or.).

—Galdera, lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruzkoa, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (17. or.).

—Galdera, norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruzkoa, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (17. or.).

—Galdera, superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (18. or.).

—Galdera, Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (19. or.).

—Galdera, Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Eman gabe geratu da (23. or.).

—Autogobernuari buruzko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratien Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu du: "Foru Lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzekoa".

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Europako herrialde guztietan ari dira gauzatzeko, egun, lanaldiaren murrizketa enplegu politiken esparruan txertatzen duten hainbat esperientzia, aplikazio eredu eta bide desberdinak erabiliz.

Nafarroan ere, bertako langabezia tasa Europako batez bestekoaren parean izaki, beharrezkoa da arazo horri aurre egitea, gizartearentzat onartzeko modukoa izanen den mailara jaisteko, denentzako lana lortzeko pauso gisa.

Urtetan zehar administrazio publikoen eta gizarte eta ekonomia eragileen artean erdietsitako adostasunak giro egokia sortu du langabezia jaisteko jarduketara zehatzak gauzatu ahal izateko, eta halaxe islatu da sektore arteko zenbait akordiotan eta enplegu planetan.

Akordio horietan, sindikatuek proposatu dute neurri multzo bat aurreikusi eta zehaztea, barne harturik orain arte emaitza onak eman izan dituzten politikei eustea eta neurri berriak ezartzea, hala nola lanaldia murriztea.

Testuinguru horretan, foru lege honen artikulua garatzen dira gizarte eta ekonomia eragileen artean harturiko akordioaren edukia osatu eta gara-

tzeko asmoarekin eta helburu zehatz batekin, alegia, lege tresna bat sortzea, lanpostuak ugaritzeko gaitasuna izanen duen lanaldi murrizketari heltzeko negoziazio prozesuak irekitzen laguntzeko.

Martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legean neurri anitz dago 35 orduko lanaldia administrazio publikoan, enpresa publikoetan eta sektore pribatuan ezarri eta sustatzeko.

Nafarroako Gobernuak lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa Foru Komunitateko produktio-sektore eta zerbitzu guztietan sustatzeko hartuko dituen neurriek, foru legearen 5. artikuluan aipatzen direnek –zeinetan foru gobernuaren jarduna lan banaketaren sustatzaile hutsarena baita–, izanen duten bilakaera eta lege gorabeherak alde batera, Gobernuak, ez beti erritmo eta egokitasun berarekin, aurrera darama 3. artikulua emandako agindua, 2000. urtean eta hurrengoetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei 35 orduko astea (1.592 ordu urtean) ezartzearen ingurukoa.

Esan daiteke, beraz, 3. artikuluko agindua (administrazio publikoa zentzu hertsian) eta 5. artikulukoa (sektore pribatua), modu logikoan eta aurreikusituz bezala garatzen ari direla.

Ez dago gauza bera esaterik 4. artikuluko edukiaz, horren xedea baita neurria ezartzea “enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek parte-hartze maioritarioa badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka”, horren erreferentzia izanik aplikatzekoa den 5. artikuluko edukia, eta ez 3. artikulukoa. Gaur egungo ondorioa da 35 orduko lan astea “Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei” aplikatzen zaiela eta ez, ordea, enpresa publikoetakoei edo parte-hartze maioritarioa Nafarroako administrazio publikoena duten enpresetakoei.

Arrazoa gure erkidegoko administrazio publikoen utzikeria besterik ez da, Nafarroako Gobernutik hasita, zeren 3. artikulua “beharturik” administrazio publikoetan aplikatzen baitituzte neurriak negoziatorako mahai orokorrean itunak eginez baina ez dute “autosustatzeko” premiarik sentitzen –4. artikulua testuaren arabera– eta ez dute aplikatzen enpresa publikoetan edo partaidetza dutenetan, horien zuzendaritzan eta kudeake-

tan duten aginte-ahalmena administrazio publikoan dutenaren pare-parekoa, handiagoa ez bada, den arren.

Legeak indarra hartu zuenetik denbora laburra iragan bada ere, beharrezkoa da haren edukia moldatzea, enpresa publikoetako langileek langile publikoen aldean pairatzen duten diskriminazioa, bidegabea eta desegokia baita, zuzentzeko, bi gizatalde horien “enplegu-emailea” berbera delako, baita dedikazioaren xedea ere, zerbitzu publikoa, alegia.

Errealitatea da 35 orduko lanaldia ez dela ia ezarri kapitalean Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan. Nahikoa da aipatzea zenbait enpresa publiko garrantzitsutan, langile kopuru handi samarra duten TRACASA, CETENASA, VINSA, NASUINSA, BALUARTE enpresetan, adibidez, ez dela 35 orduko lanaldia ezarri. Horrez gain, beste zenbait enpresa publikorekin alderaturik, bidegabekeria gertatu da, batzuetan 35 orduko lanaldia aplikatu delako eta beste batzuetan berriz ez.

Beraz, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko abenduaren 29ko 15/2000 Foru Legearen 4. artikulua ordeztzea proposatzen dugu, sustapen neurriak aurreikusituz ez ezik aipatutako enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena derrigorrezkotzat hartua izateko.

Artikulu bakarra. 15/2000 Foru Legearen 4.1 artikulua aldatuko da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

4.1. Nafarroako Gobernuak, martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legearen 5. artikuluan esaten denaren arabera, lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa ezarriko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko erakunde autonomoek parte-hartze maioritarioa badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

Azken xedapena

Foru lege honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babesaren eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoek dagokiela, aurrea hartzeko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikulua ezartzen du "barne osasuna eta higie alorretan, gaur egun dituen ahal-

menak eta eskumenak dagozkiola Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea".

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5.14 artikulua ezartzen duenez, Foru Komunitateko osasun administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, alde aurretik aurrekontu zuzkidura berekia eta programazio berariazkoa eginez gero egiazki abiatuko direnak.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, 1998ko martxoaren 5eko ebazpen bat zela medio, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen Foru Dekretua onetsi zuen.

Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena Levonogestrel printzipio aktiboa duten sendagaiak finantza zitzen, baina Gobernuak hura betetzeari uko egin dio. Bada, osasun sistema nazionalako farmazia laguntza jasotzeko eskubidea duten Foru Komunitateko

herritarrek –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak luzaturiko Banakako Osasun Txartela dutenek– aipatu printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate horiek Nafarroako Foru Komunitatearen baliabide berekien kargura jasotzen dutela bermatzeko, ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena.

Artikulu bakarra. Irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuaren eranskinean Levonogestrel printzipio aktiboa duten farmazia espezialitate guztiak sartuko dira.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak kanpaina bat abiaraziko du "biharamuneko pilula" izenekoak gaixoen izan ditzakeen albo-ondorioei buruzko informazioa zabaltzeko, eta nahi ez diren egoerak saihestea helburu duen sexu-heziketako programa berariazko bat ezarriko du.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak bermatu egingen du herritarrek sendagai hori eskuratzeko duten eskubidea, baldin eta sendagai errezetatu

eta eman behar duten osasun arloko profesionalen artean beren burua kontzientzia eragozletzat hartzen dutenak badaude.

Azken xedapena

Foru lege honek 2003ko urtarrilaren batean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 1eko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, 44.1 eta 2 artikuluan Foru Komunitateari eskumen osoa eman zion lurralde antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren arloan, bai eta komunitatean interesa eta eragina duten herrilaren arloan ere.

Edozein minusbaliotasun –organiko nahiz inguruabarrek eraginda– duten pertsonak administrazio publikoek ematen dituzten ondasunak eta zerbitzuak eskuratu ahal izatea, erdietsi beharreko helburua ez ezik, gaur egungo gizartean errealitatea izan behar duen herritarren eskubidea ere bada.

Nafarroan hogeita hamaika mila minusbaliatu baino gehiago bizi dira, hau da, populazioaren % 6, eta kezka ikusten dute, gizartean haiekiko dauden gabeziak zuzendu beharrean, lege indardunak behin eta berriz bete gabe gelditzen direla. Kontuen Ganbarak berak halaxe adierazi du ezgaituei buruz 1995-1999 eperako eginiko txostenean, legeak ez baitira betetzen ez minusbaliatuentzako erreserbatu beharri dagokionez ezta eraikin berrietara, aparkalekuetara eta abarretara iristeko erraztasuna bezalako gaiei dagokienez ere.

Berriki, Nafarroako biztanleen bizi baldintzei buruz gure erkidegoko Estatistika Institutuak 2001ean egindako inkesta batek agerian utzi du biztanleak ez daudela batera ados oztopo arkitektonikoen arazoa oraindik gainditu ez izanarekin.

Urte asko iragan dira oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko legea onetsi zenetik, eta denbora horretan Nafarroako gizartea Europako erregio garatuenetara hurbiltzen eta arlo askotan haiekin bateratzen joan da. Horrexegatik iruditzen zaigu ongizate orokorraren maila berriak islatu behar direla gure erkidegoko herritar guztien irisgarritasun baldintzetan. Lege indarduna onetsi zenetik iragandako denbora, zenbait arlotan hura nahikoa zehaztugabea izatea eta jarraipen eta kontrolerako mekanismorik eza behin baino gehiagotan ez betetzeko arrazoiak izan dira.

Gurea bezalako gizarte batean, zeinetan bizitzeko itxaropena gero eta handiagoa den, batetik eta, bestetik, mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, –dela istripu baten ondorioz dela gaixotasun batengatik– neurri batean galdu duten pertsonen kopurua ere handitzen doan etengabe, irisgarritasun

sunaren baldintzak hobetu beharrak arduradun publikoen kezka iraunkorra izan beharko luke.

Proposamen honen asmoa ez da egun indarra duen legearen aldaketa orokorra egitea –nahiz eta hala egin beharko den lehenbailehen eta zerkusia duten eragileen partaidetzarekin–, baizik eta gure iritziz premiazko esku-hartzea eskatzen duten puntu zehatz batzuei heltzea bizkitartean.

Horretarako onesten da foru lege proposamen hau, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea, 10, 12 eta 14. artikuluetan eta lehen xedapen gehigarrian aldatzekoa.

1 artikulua. 13/1988 Legearen 10. artikuluko 3. idatz-zatiarena aldaketa

“3. Erregelamendu bidez ezarriko da erreserbatu beharreko tokien kopurua, mugikortasun urritua duten pertsonak garraiatu behar dituzten ibilgailuen kasurako, bai eta horien diseinuan eta exekuzioan kontuan hartu beharko diren baldintzak eta ezaugarriak ere, bai ibilgailu arinetarako planeatu, proiektatu edo egiten diren aparkalekuetan, bai egun daudenetan. Edozein kasutan, toki horien kopurua ez da izaneren kopurua osoaren % 6tik beherakoa.

2. artikulua. Legearen 12. artikuluari 7. idatz-zatia, berria, gehitzea.

“7. Etxebizitzetarako eraikin berriek bere irisgarritasuna bermatu egin beharko dute, irizpide hauen arabera:

7.1. Etxebizitza kolektibo guztietan aurreikusi egin beharko da tokia, gutxienez, eraikinaren bizian zehar igogailua paratu ahal izateko aurrerago.

7.2. Eraikinaren solairuen kopurua beheko planta gehi beste bi baino handiagoa denean, eraiki horietan garatzen den komunikazio bertika-

letako gune bakoitzean, gutxienez igogailu bat proiektatu eta eginen da.

3. artikulua. Legearen 14. artikuluari 3. idatz-zatia, berria, gehitzea.

“3. Etxebizitzetarako orubeak adjudikatzeko lehiaketetan puntuatu eginen da, baldintzen pleguaren bitartez, etxebizitzaren diseinuak aintzat hartzea mugitzeko minusbaliotasun larria duen pertsona baten beharretara aise egokitzeko aukera. Halaber, dagokien lehiaketetan puntuak emanen zaizkie beheko solairuko etxebizitzak lehentasunez horrelako minusbaliotasunak dituzten pertsonentzat egiten dituzten proposamenei.

Etxebizitzetarako eraikinetan, behekoa gehi beste bi solairu izan eta beheko solairuetan sustapen publikoko etxebizitzak egiteko aukera badute, etxebizitza horiek, lehentasunez, mugitzeko minusbaliotasun larria duten pertsonentzat izanen dira.

4. artikulua. Lehen xedapen gehigarria aldatzekoa.

Lehendabizikoa. 1. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernu departamentuek, zeinek bere eskumenean esparruan, txosten bana prestatuko, haien menpeko eraikin, zerbitzu eta instalazioen egokitzapen planak noraino bete diren ebaluatzeko oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 13/1988 Legea betetzeko.

2. Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernu departamentuek jarduketa plan bat aurkeztuko dute Foru Biltzarrean, herritar guztien irisgarritasun eskubi-dearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak finkaturik bertan.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzatzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena aintzatzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak

aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzatzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko maiatzaren 24ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta

145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubide Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko maiatzaren 24ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, osasun-garraioaren arloan Osasun Departamentuak egindako jardueri buruzkoa

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, osasun-garraioaren arloan Osasun Departamentuak egindako jardueri buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoa-rekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Enpresa pribatuekin izenpeturiko itunen bidez egiten den osasun arloko garraioak buruhauste franko eragiten dizkio administrazioari, batez ere zerbitzuaren kalitate eskasagatik. Gure taldeak, berriki, Tuteran eta Tafalla aldeko garraioaren egoera tamalgarria salatu du.

Horregegatik jakin nahi dugu zer jarduketa gauzatuko dituen Osasun Departamentuak osasun arloko garraioaren inguruan.

Iruñean, 2002ko apirilaren 23an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, taldeak berak kultur politikaren inguruan aurkeztutako jabelduraren ondorioz, honako mozio hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko: Nafarroako Gobernuaren eta "Vianako Printzea" Erakundeko zuzendariaren kultur politika gaitzes-tea eskatzen duen mozioa.

Zioak:

2002ko apirilaren 18an, Biltzarreko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren inguruko jabeldura bat eztabaidatu zuen. Jabeldura hartan Sozialisten Taldeak kezka agertu zuen Nafarroako Gobernua, "Vianako Printzea" Erakundeaz baliatuz, kulturaren arloan gauzatzen ari den politika dela eta; erakunde horren egungo egoera sekula pairatu duen larriena da, kultura ardatz duten hainbat eztabaidaren xede izaki.

Jabelduraren eztabaidan adierazi zenez, legegintzaldiaren hiru urte hauetan eta bereziki azken denboretan, Nafarroako Gobernuaren kultur politika eta hura gauzatzen duen erakundea polemika gehiegitan sarturik ikusi dugu, haren jardunaren beraren ondorioz; erakundearen irudiari kalteak eragin dizkio horrek guztiak, eta herritar askoren eta talde politikoen kritikak ekarri, Zuzendaritzak UPNren interes politikoekiko agertu duen mendetasuna nabarmenegia delakoan.

Kultur politikaren egoera kezkarriaren analisi horri gobernuak emaniko erantzun bakarra izan zen bere jarduketei oniritzia ematea eta Nafarroako sozialistei leporatzea gobernuaren irudia kalte-zeko asmoa, betiere Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren egungo okerreko egoera gainditzeko inongo neurririk azaldu gabe.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak haxe erabaki du:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren kultur politika gaitzesten du, politika horrek polemika gehiegi eragin dituelako eta horrek Vianako Printzearen Erakundearen ohiko irudi ona kaltetzeaz gain atzerapausuak eragin dituelako Nafarroako Foru Komunitatean kultura independentziaz eta profesionaltasunez kudeatzeko moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernuaren kultur politikaren ardura-dunaren lana, "Vianako Printzea" Erakundearen zuzendari J. Ramón Corpas jaunarena alegia, erantzukizun politiko horretaz jabetu zenetik etengabeak izan direlako eztabaidak, bere jarduean egin dituen akats larriek eragindakoa; akats horiek, bestalde, "Vianako Printzea" Erakundearen irudi profesional eta inpartziala kaltetu dute.

Iruñean, 2002ko apirilaren 23an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Helduen Tutoretzarako Fundazioa iraungi dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Helduen Tutoretzarako Fundazioa iraungi dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan UPNren Gobernuaren ezaugarrietako bat izan da zerbitzu publikoak kanpokoen esku uzteko tresnei lehentasuna ematea, batez ere gizarte zerbitzuen eta gizartearen osasunaren arloetan; erantzukizun publikoak besterentzen ditu horrela, eta ondorio nabarmenenak gure gizartearen sektore ahulenek pairatzen dituzte: zaharrak, desgaituak eta adimeneko arazoek eta eritasun degeneratiboek erasandako pertsonak.

Zuzenbide pribatuko figurak, fundazioak, adibidez, sortzeak bigarren eta hirugarren mailako egiturak sortzea eragiten du, eta horren ondorio zuzena da instituzioek kontrola galtzea, erantzukizunen sakabanaketa dela-eta, bai eta administrazio publikoek eta gainerako erakundeek, administrazioaren eta gardentasun erabatekoarekin –zerbitzuan eta kudeaketa ekonomikoan– hura bete behar duen gobernuaren jardunbide egokiaz arduratu beharra duten horiek, ahalmenak galtzea ere. Gero eta gehiago erabiltzen den sistema horrek indargabetu egiten du egitura horiei loturik dagoen populazioaren babes publikoa, egiturek behatzarekin izendaturiko patronatuen aurrean erantzun behar dutelako.

Eraginkortasunaren eta efizientziaren aitzakia-ekin, administrazio publikoak, zerbitzu publikoaren eginkizun diren aldetik, halabeharrez bete beharko litzuzkeen ahalmenak eskualdatzen dira, bereziki desgaitasunak, eritasun degeneratiboak edo adimeneko arazoak direla-eta legez ezgaiturik dauden pertsonen tutoretza. Praktikan, lehentasuna ematen zaio arazo larriak dituzten gizatalde ahulentzako laguntzaren kostuak murrizteari, eta ez da ahaztu behar gizatalde horiek merkataritza interes handien xede direla, dirulaguntza publikoen eta zerbitzuen erabiltzaileek edo familiakoek bere gain hartzen duten ordainketaren zatiaren kargura. IUN/NEB Taldeak, baita Biltzarreko beste talde batzuek eta Nafarroako Arartekoak ere, kezka agertu du behin eta berriz administrazioaren beste organo batzuei aplikatzen zaizkien kontrol politiko eta ekonomikorako neurriak aise saihestu ahal dituzten organoen ugalketa dela-eta.

UPNren Gobernuak laguntzarako bi fundazio sortu ditu –bata epailearengandik ezgaitasun deklarazioa jaso duten helduen tutoretzarako eta bestea, MEISAL izenekoa, desgaitasunak (fisikoa,

psikikoa, zentzumenena, gizarte mailakoa) eta adimen eritasuna dutenekin jarduketak betetzea–, eta horrek ateak ireki dizkio Nafarroan nahiko zabala den gizatalde ahul batentzako laguntza zerbitzua administrazioaren eskuetatik kanpo uzteari. Estatutuen helburu orokorrek aukera askotarako bide ematen dute, hala nola fundazioak batzea, itunak izenpetzea irabazi asmorik gabeko entitateekin eta merkataritzakoekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin, lankidetzan aritzea erakunde edo entitate nazionalekin zein nazioartekoekin, publiko zein pribatuekin, GKEekin eta atzerriko gobernuekin.

Hasiera batean Nafarroako Gobernuo kideek gehien bat osaturiko patronatuek ahalmen zabal eta orokorrak izanen dituzte, eta ondoren aldaketak egin ahalko dira, estatutuetan horretarako babesa baitago, esate baterako patronatuan beste kide batzuk onartzea, hasierako zuzendaritza, eginkizunak eta jarduerak aldatzea, edo lankidetzak eta babespekoen edo erabiltzaileen ondarearen kudeaketa eskuordetzea. MEISALen kasuan, beste fundazio batzuekin batzeko aukera handiak ditu, baita dohaintzak eta era guztietako ekarpenak jardunbidearen ordainketan erabiltzeko ere, eman behar dituen zerbitzuen erabiltzaileak hautatzeko aukera, eta halaber Nafarroatik kanpo delegazioak eta bulegoak ezartzekoa. Horrek guztiak tresna malgua bihurtzen du fundazioa, baina aurretik sumatu ezina.

Horregatik guztiagatik honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak premiatzen du Nafarroako Gobernu Nafarroako Helduen Tutoretzarako Fundazioa azkendu dezan eta Foru Komunitatean legez bizi direnen tutoretza, kuratela eta defentsa judiziala berreskura ditzan, ahalmen horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bidez bere gain hartuz eta ezin desenkusatzeko ahalmen hori betetzeko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta aholkularitza berezia emanaz.

Era berean, Nafarroako Gobernuak premiatzen da desgaitasunak eta eritasun kronikoak dituzten pertsonen eman beharreko laguntza zerbitzua bete dezan, gardentasun eta kontrolerako berme handiagoak dituzten administrazio enteei, institutu publikoek, adibidez, kudeatuko dituzten sistemak eta zerbitzuak sortuz, eta bere gain hartuz erabiltzaileei zuzenean edo zeharka emandako zerbitzuen jardunbide eta kalitate egokiaren gaineko erantzukizun osoa.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Alderdi popularraren gobernuak alderdi politikoei buruzko lege organikoaren aurreproiektu bat tramitatzeari ekin dio. Ekimen horren helburua, gobernuburuak berak adierazi duenez, Batasuna legez kanpo uztea da, terrorismoaren kontrako ustezko estrategia baten testuinguruan.

Halere, IUN-NEBen iritzia da ez dela oso hautu egokia alderdien sistemaren jardunbidean esku-hartzea terrorismoaren kontrako borrokaren esparruan. Egia esan, hanka sartzea da. Konstituzioaren oinarritzko kontsentsuaren alderdi erreal bat, gure sistema politikoan alderdiek betetzen duten eginkizunari dagokiona, funtsean aldatzea da.

Lehenengo eta behin, ez gara bat heldu hain munta handiko erreforma baten xedea alderdi bat legez kanpo uztea izatearekin.

Bigarrenik, gure zigor legeriak nahikoa elementu baditu politikaren babesean delituak egiten dituzten pertsonak gartzelara bidaltzeko edo hala egiten duten erakundeak desegiteko.

Delituak egiten dituzten politikarien kontra jotzeko behar den guztia gure Zigor Kodean dugu, Estatuko fiskal nagusiak eginahalak egin arren hura eragozteko.

Bestalde, sistema demokratiko batean ez da bidezkoa zigor arloko prozesu-bermeak saihestea salbuespeneko legeria batez baliatuz, afera honetan zerikusia duen aldeak sustaturik, ad hoc epai-tegiekin eta helburua alderdi bakarra duela, are gehiago zigor arloko prozesu-berme horiek gaurdaino funtzionamendu ona izan dutelarik.

Alderdi Politikoei Legea aldatzea Batasuna legez kanpo uztea besterik ez buruan arriskutsua izanen litzateke zuzenbideko estatuarentzat berarentzat ere.

Alderdi Politikoei buruzko 54/1978 Legea, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Konstituzioa, noski, sistema demokratikoaren eta adostasun konstituzionalaren bizkar hezurra dira; hau da, arau horiek dituzte ezarririk Espainiako sistema politiko demokratikoaren joko arauak.

Hortaz, zentzugabea eta arriskutsua da Legea aldatzea Batasuna jomuga bakartzat harturik, eta ez Espainiako sistema demokratiko osoa helburu. Lege hori aldatzeko nahia adierazte hutsak konpromisoa eta eztabaida eskatu beharko zukeen alderdi demokratiko guztien aldetik, ez soilik PP eta PSOEnetik. Demokrazia eta haren defentsa ez dira soilik bi indar politiko horien ondarea. Gainerako alderdi demokratikoei —horien artean Espainian demokrazia berreskuratzeko borrokan lehengo lerroan aritu ziren milaka militante dituztenak badira— alderdi politikoei buruzko legearen erreforman parte hartzeko eskubidea ez eze betebeharra ere badute.

Zirriborroan, PP alderdiak Batasunari dagokionari soilik ekin dio, baina ez die erreparatu alderdi politikoen bestelako arazoei, hala nola, ustelkeriaren kontrako borrokari, alderdian herritarrengana hurbiltzeari, herritarren parte hartze aktiboa espainiako bizitza politikoan edo arrazakeriaren eta

xenofobiaren kontrako borrokari (espresuki eta zuzenean).

Horrez gain, PPK erreforma hau terrorismoaren kontrako estrategiaren barruan kokatzen duenean, horrelako neurrien ustezko eraginkortasuna argi eta garbi zalantzan jartzeko betebeharrak politikoa eragiten du IUN-NEBen. Bilatzen omen duen ondorio ez guztiz bestelakoa ekar dezake Batasuna legez kanpo uzteak, baita geldiarazi ere erakunde politiko hori pairatzen ari den krisia, EAEko azken hauteskudeen ondotik hango gizartearen sostengua erdia galdu baitu. Argi esan beharra dago: Batasuna legez kanpo uzteak zaildu egingen du terrorismoa gaitzesten ez dutenak garaitzea bai politikan bai gizartean.

Kontrakoa dioten adierazpenak egin izan dituen arren, PP aspalditik ari da bere aldetik jokatzeko hain afera larria den terrorismoaren kontrako borrokan; zoritxarrez, haren strategiaren xedea ez da berebiziko garrantzia duen arazo horri aurre egiteko behar den adostasuna berreskuratzea.

Horregatik guztiagatik, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak honako hau aurkeztu du:

Erabaki proposamena

Lehendabizikoa. Nafarroako Parlamentuak, bere uste demokratiko sendoetan oinarriturik, ETA irmoki gaitzesten duela berresten du. Halaber, elkartasun aktiboa adierazten die haien ideien alde egiteagatik mehatxaturik dauden alderdi politikoei eta hautetsiei.

Zuzenbideko estatuak, legezkotasun demokratikoak bere esku jartzen dituen tresnez baliaturik, ETAk hiltzen jarraitzea galarazi behar du. Aldi berean, beharrezkoa da ETAk duen sostengua, politikoa eta gizarte mailakoa, murrizten joatea.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuaren iritziz beharrezkoa da alderdi politiko guztiek bide bakez eta demokratikoak defendatzea arazoak konpontzeko, eta indarkeria baztertzeko. Aipatutako hori bizikidetasun demokratikorako eta edozein arazoren konponbidean aurrera egiteko oinarritzeko printzipioa da.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak uste du indarkeriaren erabilera amaitzeko beharrezkoa dela indarkeria baztertu eta gaitzesten ez duten aukerak sostengua galtzea gizartean eta hauteskundeetan.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuaren iritziz, adostasun konstituzionalek heldu diren testuak aldatzeko, alderdiei buruzko legea kasu, indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela. Onartezina da aldaketa horretarako aintzat ez hartzea erakundeetan ordezkariak duten aukera politikoen aniztasuna. Alderdi politiko demokratikoei gai izan behar dute batasun demokratikoa aukeren artean bidezkoak diren desberdintasunei gailen dakien lortzeko.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak kezka adierazten du PPren gobernuak aurkeztu duen alderdi politikoei buruzko lege organikoaren proiektua onesteak gure sistema demokratikoa eta ordena konstituzionalari ekar diezaikeen kaltearen aurrean.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Batasuna legez kanpo uzteko helburu politikoarekin. Neurri politiko horrek kontrako iritzi asko eragin ditu eztabaida politikoetan eta azterketa juridikoetan, eta ez du inola ere bermatzen haren helburua erdiesteko —denok nahi duguna—, indarkeria gaitzesten ez dutenek sostengu soziala ahultzea alegia, lagungarri izanen denik.

Iruñean, 2002ko apirilaren 23an.

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak ondoko galdea egin du: "Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Berriki irakurri dugu bertako komunikabide batean Nafarroak Madrilen duen delegatu Ricardo De León Egüés jaunak M.T.S. enpresako kontseiluko kidea dela. Informazio horren arabera, Espainiako lehendakari José M^a Aznar jaunak Foru Komunitatean oraintsu eginiko egonaldian teknologia berriekin zerikusia duten zenbait instalaziotan izan zen bisitan. Halaber, M.T.S. enpresaren lantegi berria inauguratu zuen, Iruñeko Agustindarren industrialdean. Planta horretako kontseilukide

bat gobernuburuak gauean eman zuen hitzaldian eta solas-afarian izan zen.

Kontseilukide hori Ricardo De León jauna zen, hain zuzen ere, Gizarte Ongizateko kontseilari ohia eta duela urtebete Foru Gobernuak izendatu zuena Madrilen Nafarroaren delegatu lanak betetzeko.

Nafarroako Gobernuko kideen eta foru administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak 3. artikuluan ezartzen du "Foru Lege honen aplikazio eremuaren barreneko goi karguek erabateko dedikazioan beteko dituzte beren eginkizunak eta ezin izanen dira batera aritu, ezta ordezeko edo ahaldu baten bidez ere, beste edozein lanpostu, kargu, ordezkaritza, lanbide edo jardueratan, publiko zein pribatu izan, beraien gain edo besteren kontura, eta, halaber, ez dute beste lansaririk jasoko administrazio publikoetako edo horiei lotutako edo menpeko entitateetako aurrekontuen kargura, ezta jarduera pribatu batetik zuzenean edo zeharka datorren beste saririk ere".

Gure irudikoz, lehenago deskribaturiko egoera ez dago aipatutako legearen 5 eta 6. artikuluetan aurreikusiriko salbuespenen artean.

Horregatik guztiagatik hauxe jakin nahi dugu:

1. "Nafarroak Madrilen duen delegatua" Nafarroako Gobernuko kideen eta foru administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari lotu behar zaio?

2. Lege horren ondorioak gauzatzeko sorturiko goi karguen erregistroari aitortu al dio "Nafarroak Madrilen duen delegatua" M.T.S. enpresako administrazio kontseiluko kide dela?

3. "Nafarroak Madrilen duen delegatuak" aitorturik al du enpresa pribatuko bestelako partaide-tzarik goi karguen erregistroan?

4. Bigarren eta hirugarren galderen erantzunak ezezkoak diren kasuan, goi karguen erregistroko arduradunak neurririk hartu al du egiaztatzeko aitortpenetan ageri diren datuak egiazkoak ote

diren jakiteko? Zein dira kasu horretan hartu diren neurriak "Nafarroak Madrilen duen delegatuak" lehendabiziko aitortpena egin zuenetik?

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Galdera, etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko gizarte gaietako ele-dun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Orain gutxi arte, etorkinek bestelako herritarrak bezalaxe har zezaketen parte Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan. Berriki, aukera hori eten egin da, zeren eta lehen hezkuntzako ziurtagiri konpultsatua eskatzen hasi baitira. Bistan da: atzerrian eginiko ikasketen ziurtagiria konpultsatzeko tramitea luzea da; izan ere, jatorrizko herrialdean eskuratu behar dira hain oinarriko ikasketei buruzko paper eta ziurtagiriak.

Eskakizun hori, orain, oztopo larria da Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateko.

Milaka atzerritar gelditzen da erregularizazio prozesuetatik kanpo; milaka dira paperik ez eta legez kontratatu ezin direnak. Hori horrela, oinarriko errenta izateko beharra gero eta handiagoa da atzerritar horietako askorentzat, bazterkeria eta pobrezia egoeran baitaude. Orain arte, errenta hori kasu berezietan eman da; horretarako, 3 hila-beteko benetako egonaldia frogatu behar zen erroldaren bidez.

Horregatik, hau jakin nahi da:

Etorkinekin lanean ari diren erakunde guztiek diote prestakuntza oinarrikoa dela etorkinen lan maila hobetzeko, eta kontratatzen dituzten enprezentzat ere onuragarria dela. Hori horrela, zergatik hasi da, berriki, Nafarroako Enplegu Zerbitzua lehen hezkuntzako ikasketen ziurtagiria eskatzen prestakuntza-ikastaroetarako?

Egoera erregularizatzeko itxaroten ari diren etorkin kopuruak gora egin du Nafarroan; hori horrela, kasu berezietan eta oraingo baldintzen pean eskuratzen jarraituko al dute etorkinek oinarriko errenta?

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak lanposturako prestakuntza-ikastaroak langile kontratatuei kobratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko gizarte gaietako ele-

dun Isabel Arboniés Bermejo andreak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatzizko erantzuna jasotzeko:

1. Gizarte Ongizatearen Departamentuak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ba al dakite Nafarroako Gobernuaren zentro berekiez arduratzen diren enpresa pribatuak kobratzen ari ote diren langile kontratatu berrien lanpostuetarako prestakuntza ikastaroak?

2. Nafarroako Gobernuko zentro berekietan gizarte zerbitzuak emateko adjudikazioa jaso duten merkataritza entitateek kontrataturiko langileei lanposturako prestakuntzaren kostuak bere gain harrarazteari zer irizten dio Gizarte Ongizatearen Departamentuak?

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrei aplikatzen zaien araudiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko osasun gaietako eledun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legeak, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoak, helburu du Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean gera daitezela Nafarroan dauden etorkin guztiak. Horixe ezartzen du lehenbiziko artikulua: "Foru Komunitateko lurraldearen barrenean osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabalduko da, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere". Xedapen gehigarriak hiru hilabeteko epea ematen zuen osasun laguntzari buruz indarrean dagoen legeria berrikusi eta, horrela, "prozedura zein baldintzak egokitu eta etorkin guztiei, eraginkortasunez eta lehenbailehen, harrera egin dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere".

Zioen azalpenean adierazten zenez, legez kanpoko atzerritarrek bermaturik behar dute osasun laguntza -2.000 inguru ziren orduan-; aipatu-

tako giza-multzoa zen ororentzako eskubide oinarriko hori bestelako herritarren baldintza beretan ez zuen bakarra –egoitza-baimena izan eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen zuten atzerritarren barne—. Orain, ia 20.000 atzerritar bizi omen dira Nafarroako herrietan, eta 5.000 omen dira egoitza erregularizatu ezin dutenak.

Horregatik, hau jakin nahi da:

1.- 2/2000 Foru Legearen garapenaren ondoriozko zer arau aplikatzen ari zaie Europako Bataunetik kanpoko atzerritarrei norbanakoaren osasun-txartela ematerakoan? Atzerritarrentzako osasun laguntza publikoa dela eta, ba al da barne jarraibiderik arauen aplikazioari buruz?

2.- 2/2000 Foru Legea oinarri hartuta, zehazki zer ari zaie eskatzen Europako Batasunetik kanpoko atzerritarrei, haien ezkontide edo bikote-kideei, kanpoan nahiz bertan jaiotako seme-alabei eta horien aurreko onuradunei?

3.- Bisatua, egoitza-baimena eta berriz elkaritzeko bisatua izatea eskatzen ari al dira norbanakoaren osasun-txartela emateko?

4.- Egoitza-baimenaren eta bisatuen mugaguna ezartzen al zaie norbanakoaren osasun-txartelei, 6 hilabeteko luzapena emanaz baldin eta onuradunak egoitza-baimenaren eskabidea aurkeztu izanaren frogagiria aurkezten badu? Hala izanez gero, zer dela eta?

5.- Ohikoa al da Osasunbideak Atzerritarren Zerbitzuari galdetzea ea norbaiti egoitza-baimena ematekoak al diren? Hala izanez gero, zer dela eta?

6.- Egia al da bertan jaiotako seme-alaben osasun-txartelak sei hilabete pasata iraungi egiten direla? Zer dela-eta hori?, eta zer eskatzen zaie gurasoei osasun-txartelak berritzeko?

7.- Nafarroako Gobernuaren ustez, praktikan, ari al da Foru Komunitatean, 2/2000 Foru Legearekin bat, osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udaletan bizi direnengana zabaltzen, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere?

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Azken bolada honetan, 2001. urteko aurrekontuetan ez dagoen "aurreko urteetako superabita" izeneko kontusaila Biltzarrean aurkeztutako kreditu gehikuntzarako zenbait proiekturen ordain gisa erabiltzeko asmoa erakutsi du Nafarroako Gobernuak.

Lehendabizikoa. Zein da gure erkidegoan aurreko urteetako superabitak egun egiten duen zenbatekoa?

Bigarrena. Zertan erabili da azken urtean aurreko urteetako superabita?

Hirugarrena. Zein arau-xedapenetan oinarritzen ari da Nafarroako Gobernu baliabide horiek erabiltzeko Foru Parlamentuak alde aurretik onetsi gabe?

Iruñean, 2002ko apirilaren 22a

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Itoizko urtegia eraikitzeak orain arte ekarri dituen gastuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Berriki izan dugu Auzitegi Gorenak Itoizko urtegiaren inguruan eman duen epaia, zeinak urtegiak ukitutako natur erreserben babeserako eremuak urez betetzerik ez dagoela dioen eta Nafarroako Gobernua behartzen duen auziaren kostuak ordaintzera.

Epaiak galarazi egiten du egun "foru urmael" den hori 510 kotatik gora betetzea, eta beraz, era-

gin garrantzitsua du Nafarroako Ubidearen bideragarritasunean, horren ur hartunea 534 kotan baitago.

Lehenbizikoa. Zein izan dira orain arte Itoizko urtegiak foru komunitateko diru-kutxei eragindako gastuak? Gastua kontzeptu desberdinen arabera zehazturik ematea nahi dugu.

Bigarrena. Zein dira Nafarroako aurrekontuaren kargura finantzatzeko dauden jarduketak?

Hirugarrena. Zein izan da orain arte gai hau dela-eta hainbat instantzian Foru Komunitatearen parte hartzea eskatu duten auziek, azkeneko epaiak barne, haren diru-kutxei eragin dien kostua?

Laugarrena. Urtegia 510 kotatik gora ez betetzeko erabaki jurisdikzionalak iraunez gero, zein izanen dira epaiaren ondorioak ekonomian –ubi-dearekin kota baxuagoan lotzeko lan gehiago–, erabileraren araubidean –Nafarroako Ubidearen erabilgarritasuna– eta maila politikoan zein izanen dira, zure ustez, zentzugabekeria administratibo horren erantzukizuna hartu beharko duten agintari politikoak?

Bosgarrena. Zenbat gastatu du orain arte Estatuko Gobernuak obra horretan?

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak galdera egin du Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxea amaitu, eraikitzeko kostua eta bertan lanean arituko direnei buruz, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak tramitatzea onartu zuen 2001eko azaroaren 12an. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Parlamentuko agerraldiren batean dagoeneko eskaini bada ere informazio hau, ikusirik azalpen zatian erabiltzen diren argudioak eta galdera zehatzei erantzun baino lehen, haxe errepikatuko nahi nuke, erantzuna hobeki ulertuko delakotan:

a) Tuterako Errepide Zerbitzuen Zentroan erabilera horretarako erreserbatu eta prest zeuden lurzatietan egin beharreko eraikinaren proiektu fakultatiboaren exekuzioa Barne zuzendari nagusiak uztailaren 4an emaniko 540/1995 ebazpenaren bidez adjudikatu zen.

b) Ondoren, legegintzaldi berria hasita, eraikina beste toki batean kokatzea erabaki zen. Erabaki horrek -okerra izan ala ez- zerikusi handia izan zuen obrak hasteko unea atzeratzearekin, galderan aipatzen den horrekin. Etapa horretan ekin zitzaion xehetasun azterlana erredaktatzeari, Barne zuzendari nagusiak, ekainaren 14ko 525/1996 Ebazpenaren bidez, polizia etxearen proiektua erredaktatu zuten arkitektoen taldeari kontratuaren gehikuntza gisa adjudikatu ondoren. Azterlanaren xedea da hirigintza arloan indarra duen araudia egokitzea proiektaturiko eraikinaren ezaugarrietara. Azkenik, proiektua erredaktaturik, Tuterako Udalak jaso, tramitatu eta 1996ko uztailaren 20an onetsi zuen behin betikoz.

Bestalde, 1996ko irailaren 17an, Tuterako Udalaren Alkatetzak emaniko ebazpenak hasiera batez onetsi zuen Tuterako errepide zerbitzuetako zentroaren udalez gairik plan sektorialeko borondatezko birzatiutzea aldatzea, horren bitartez ahalbidetzeko zentroaren titularitatearen lagapenak egiten joatea eta Nafarroako Gobernuak, azkenean, polizia etxea kokatzeko lurrez baliatzea.

c) 1996ko urrian, Nafarroako Gobernuan txandatzeko politikoa gertatzean berriz, iritzi nagusia da eraikina tokiz aldatzeko irekitako prozesuak ez duela bueltarik eta proiektu teknikoa, 1996ko ekainean jasotakoa eta, beraz, polizia-etxearen diseinua bere horretan utzi behar direla, bai baliabideen ekonomiagatik bai lurzati berriaren orografiak modu berezian baldintzatzeagatik proiektua.

Nolanahi ere, proiektuaren tramitazioa zail samarra zen artean ere. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren jardunaren jomuga titularitatea lortu eta, ondorioz, lurrez baliatu ahal izatea zen, ezinbestekoa baita lanen kontratazio-rako espedienteari hasiera emateko. Plan sektorialean aurreikusirik zegoen aprobetxamendua Tuterako errepide-zerbitzuen zentroaren sustatzaileak Tuterako Udalari, aldez aurretik eta hala-beharrez, eskualdatzeak eta aprobetxamendu hura polizia-etxea, haren kokalekua aldatu ondoren, eraiki beharreko lurzatiaren egoteak ekarri zuten Udalak Nafarroako Gobernuari lagatzeko prozesua 1997ko apirilaren 30ean hasi izana. Nafarroako Gobernuak, lagapenaren baldintzak aztertu ondotik, hura onartzea erabaki zuen ekainaren 23an, baina aipatutako baldintza horietako batzuk eta Tarazonako errepidetik hirirako sarbideak berritzeko garai berean eginiko proiektuan hartutako soluzioak elkar egokitu beharrak 1998ko otsailaren 13ra arte atzeratu zuten eskritura publikoen behin betikoz izenpetzea.

Azkenik, proiektuaren prezioak berrikusi, beharrezko lizentzia eskuratu eta enkantearen bidezko kontratazio espedienteak tramitatu ondotik, Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxea eraikitzeko lanak adjudikatu ziren, 424.927.327 pezetako kostuarekin, Barne zuzendari nagusiak azaroaren 13an emaniko 1427/1998 ebazpenaren bitartez, eta 1999ko otsailaren 1ean hasi ziren. Proiektuaren erredakzioa eta ingurunea urbanizatzeko lanen kontratazioa egiteko gelditzen ziren, Tarazonako errepidetik hirirako sarbideak berritzeko proiektuari lotuak baitziren, eta proiektu hori erredakzio

fasean izaki. Azken horiek, hortaz, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak urriaren 17an emaniko 225/2000 Foru Aginduaren bidez adjudikatu ziren 136.043.656 pezetako kostuarekin.

Esanak esan, galderaren mamiari helduta, hauxe adierazi behar da:

1. Tuterako polizia-etxea eraikitzeke lanak 2001eko urriaren 31n amaitu ziren.

Geroago, osatu egin da, lan hauekin: lanaren azken azterketa, aginduzko lizentzia eta baime-nen kudeaketa, energia horniduraren (ura, gasa eta elektrizitatea) kontratazioa, lotura eta alta ematea eta azkenik, eraikineko zerbitzu, instalazio, makineria eta ekipamendu guztiak abian jarri eta egiaztatu dira.

Aurreikusirik dago abenduaren 19an egitea lanen jasotze formala.

Aurreikusirik dago Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxea 2002ko urtarrilean hasia zerbitzu ematen.

2. Ez da inolako atzerapenik izan obren exekuzioan.

Exekuziorako hasierako epea 24 hilabetekoa zen, baina luzatu egin zen, kontratazio arauak horrelako kasuetarako ezartzen dituzten aurreikuspenei jarraikiz, bai proiektuaren exekuzioan zehar sartutako aldaketak egiteko bai segurtasun neurriak jartzeko obra osagarriak egiteko.

Hasierako epeari luzapenak gehitu ondoren bete beharreko epea gainditu gabe amaitu dira lanak.

3. Kontuen Ganbararen txostenean dauden gomendioak betetzeari dagokionez,

a) Polizia-etxea eraikitzeke proiektua gainbegiratzea ezinezkoa zen, ez behintzat lanak adjudikatu aurreko fasean, txostena argitaratu (1999ko urriaren 5ean) aurretik adjudikatu (1998ko azaroaren 13an) eta hasi (1999ko otsailaren 1ean) baitziren.

b) Espediente zentralizatu bat ezartzearen inguruan, aurreko egoera hobetu egin da, ganbararen gomendioei jarraikiz, administrazioen arteko koordinaziorako neurriak ezarri.

4. Eraikina eraikitzeaz, berriz, esan hauexek direla obra proiektuan sartutako aldaketak:

a) Lehenbiziko aldaketa.

Exekuzio aurrekontua: 49.981.327 pezeta.

Exekuzio epearen luzapena: hiru hilabete.

b) Bigarren aldaketa.

Exekuzio aurrekontua: 13.936.212 pezeta.

Exekuzio epearen luzapena: 26 egun.

c) Hirugarren aldaketa.

Exekuzio aurrekontua: 125.021.283 pezeta.

Exekuzio epearen luzapena: 2001eko urriaren 15 arte.

d) Obra eta instalazio osagarriak (segurtasun sistemak jartzeko).

Exekuzio aurrekontua: 71.877.965 pezeta.

Exekuzio epearen luzapena: 2001eko urriaren 31 arte.

Aldaketen eta obra osagarrien arrazoiak hauek dira, laburturik:

- Proiektua egin ondotik edo obra egin bitartean agerturiko arau berrietara egokitzea.

- Egitura eraikitzean egindako aldaketak (pilotajeak lurraren ezaugarrietara egokitzea, enkofratu bereziak paretak eta zutoinak lurrera egokitzeke, hobekuntzak eraikinari eusteko forjatuan eta armaduran, harlauzetako zinbriak jartzeko sistema berriak).

- Aldaketak obraren exekuzioan (hobekuntzak eraikinaren aireztapen naturalean, aluminiozko arotz lanetan eta lunen segurtasuna areagotzea, ormigoien irazgaiztasuna hobetzea, zenbait gelatiko segurtasuna eta segurtasuneko eskailera berriak teilatuetan eta sarbideetan eta abar).

- Instalazioak (saneamenduak erraztea, suteetatik babesteko sistemarako aireztapena hobetzea, gas instalazioak hobetzea, ponpaketa multzoa eta abar).

- Neurketetako aldaketak.

- Lan berriak, eraikinaren segurtasun eta zain-tza sistema finkoak jartzeko, eraikinaren proiektuan ez zeudenak.

Laburturik, Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxea egiteko kostua, pezetatan, hauxe da, zehazturik:

–Adjudikazio aurrekontua	424.927.327
–Lehen aldaketa	49.981.327
–Bigarren aldaketa	13.936.212
–Hirugarren aldaketa	125.021.283
–Batura partziala	613.866.149
-Obra osagarria (segurtasuna)	71.877.965
-GUZTIRA –eraikitze lanen kostua, amaierakoa–	685.744.114

Urbanizazioaren arloan ez da aldaketarik egin proiektuan.

–Adjudikazio aurrekontua 136.043.656

–GUZTIRA –urbanizazio lanen kostua, amaierakoa 136.043.656

Amaitzeko, honela labur dezakegu:

–ADJUDIKAZIO AURREKONTUA

–Tuterako polizia-etxearen eraikina 424.927.327

– Urbanizazioa 136.043.656

–GUZTIRA 560.970.983

–ADJUDIKAZIO AURREKONTUA

–Tuterako polizia-etxearen eraikina 685.744.114

– Urbanizazioa 136.043.656

–GUZTIRA 821.787.770

5. Tuterara joanen diren foruzainak hautatzeko prozesua hasirik dago.

Erabiliko den prozedura da Nafarroako Polizia kidegoei buruzko Legean eta Nafarroako Foruzaingoaren Antolamendurako Erregelamenduan ezarritakoa, arau horiek indarra baitute egun. Horren arabera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak eta Barne zuzendari nagusiak, lehenak eskuordeturik, dituzte eskumenak langileak atxikitzeko Foruzaingoko unitate organikoek eta lanpostuei. Foruzaingoaren buruaren esku dago, berriz, proposamena prestatzea merezimendu, gaitasun eta antzintasunaren printzipioei jarraituz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa

Eman gabe geratu da

Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariak, pasa den martxoaren 8ko erabakiaren bidez, erakunde horren zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onetsi zuen. Deialdi hori martxoaren 25eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta martxoaren 27ko 38. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta –3. oinarriko 3. idatz-zatian ezarria–, ez da eskabiderik aurkeztu eta, ondorioz, deialdia eman gabe uzten da.

Aurrekari horiek kontuan harturik, hona hemen Kontuen Ganbarako Lehendakariaren ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia eman gabe uztea. Deialdi hori 2002ko martxoaren 8ko Lehendakariaren erabaki baten bidez onetsi zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko apirilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Autogobernuari buruzko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Autogobernuari buruzko batzorde berezia sortzea.

2. Aipatu batzorde horren osaketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea, Eledunen Batzarrarekin bat etorritz:

Lehena. Autogobernuari buruzko batzorde berezia sortzen da.

Bigarrena. Hona hemen batzordearen xedea:

– Foruaren Hobetzearen bitartez lortu dugun autogobernu maila ebaluatzeko azterlan bat egi-
tea, hartutako transferentziak, hartzeko daudenak eta har daitezkeenak barne hartuko dituen.

– Nafarroako autogobernuaren garapenean aurrerapausoak emateko neurriak proposatzea.

Hirugarrena. Batzordeak balorazioak eta proposamenak eskatu ahalko dizkie zenbait pertsona eta adituei, eta baita gizarte eragileei ere.

Laugarrena. Batzordearen esku utzitako lana dokumentu batek burutuko du, gehiengoz harturiko ondorioak edo proposamenak adierazirik. Boto partikular gisa atxikiko zaizkio batzordekideen irizkiak, gehiengoarenak ez direnean.

Bosgarrena. Batzordea Parlamentuko talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, baina badago muga bat: talde bakar batek ere ez dezala izan batzorde berezi honetan, Parlamentuko ohiko batzordeetan dituen kideak baino kide gehiago.

Seigarrena. Batzordea eratzeko bilkura Biltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean eginen da, Parlamentuko taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

Zazpigarrena. Eratze-bilkuran batzordeko lehendakaria hautatuko da. Lehendakaria bertan egon ezean, Parlamentuko bere taldeko kide batek, batzordekidea bera, ordeztuko du, edo, bestela, haren ordezeko gisa kreditatu denak. Batzordeari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

Zortzigarrena. Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, Eledun bakoitzak parlamentuko bere taldea osatzen duten parlamentariak adina boto izanen ditu Batzordean.

Bederatzigarrena. Batzordeak bere eginkizunak betetzen jarraituko du agindutako lana bukatu

arte –hala bada, orduantxe iraungiko da–, edo Mahaiak batzordea desegitea erabaki arte.

Hamargarrena. Antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez arau hauetan aurreikusi ez den guztirako, Biltzarraren Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har arautu duena izanen da kontuan; hor ere ez badago araurik, Erregelamenduak ohiko batzordeetarako arautu duena aplikatuko da.

3. Parlamentuko Taldeek maiatzaren 14ko 12:00ak baino lehenago jakinaraziko diote Mahaiari zein izango diren Batzordean edukiko dituzten ordezkariak.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--